

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2013/2014 ikasturtea**

### **IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO TEKNIKAK: ESPERIENTZIAK HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN**

**Egilea: Olatz Laka Garamendi**

**Zuzendaria: Maite Serna Martinez**

**Leioan, 2014ko ekainaren 13an**

© 2014, Olatz Laka

# AURKIBIDEA

|  |           |
|--|-----------|
| <b>ABSTRACT-A</b> .....  | <b>3</b>  |
| <b>1. JUSTIFIKAZIOA</b> .....  | <b>4</b>  |
| <b>2. HELBURUAK</b> .....  | <b>4</b>  |
| <b>2.1. Helburu orokorra</b> .....   | <b>4</b>  |
| <b>2.2. Helburu zehatzak</b> .....   | <b>5</b>  |
| <b>2.3. Hipotesiak</b> .....   | <b>5</b>  |
| <b>3. MARKO TEORIKOA</b> .....   | <b>5</b>  |
| <b>3.1. Irakurketaren garrantzia haurren garapenean</b> .....              | <b>5</b>  |
| <b>3.1.1. 0-6 urteko haurrengan irakurketa lantzearen garrantzia</b> ..... | <b>7</b>  |
| <b>3.2. Irakurzaletasuna sustatzea</b> .....                               | <b>8</b>  |
| <b>3.3. Gaur egungo erronka</b> .....                                      | <b>10</b> |
| <b>4. METODOLOGIA</b> .....  | <b>12</b> |
| <b>4.1. Parte-hartzaileak</b> .....  | <b>12</b> |
| <b>4.2. Tresna</b> .....   | <b>13</b> |
| <b>4.3. Prozesua</b> .....   | <b>14</b> |
| <b>5. EMAITZAK</b> .....   | <b>14</b> |
| <b>6. ONDORIOAK</b> .....  | <b>24</b> |
| <b>7. BIBLIOGRAFIA</b> .....   | <b>28</b> |
| <b>8. ERANSKINAK</b>   |           |

## ABSTRACT-A

Eskola garaian dauden haurrengan irakurketak duen garrantzia ikusita, eskola eremuan irakurzaletasuna sustatzeko teknika ezberdinak eraman izan dira aurrera urteen joanean. Gaur egun, ordea, eskolan gero eta presentzia handiagoa duten IKTak haurren irakurketa grina oztopatzen duten tresnatzat ditu askok, irakurzaletasunaren sustapenean egin ditzaketen ekarpenei inolako aukerarik eman gabe. Lan honen bidez, beraz, gaur egungo eskoletan irakurzaletasuna sustatzeari Haur zein Lehen Hezkuntzan zer nolako garrantzia ematen zaion aztertzeaz gain, irakurketarekiko jarrera baikorra eraikitzerako orduan gauzatzen diren teknika eta esperientzietan IKTek zer nolako presentzia duten ikusi nahi izan da, profesionalen iritzi eta jarrerak kontuan hartuz.

*Hitz gakoak: Irakurketa, IKT, irakurzaletasunaren sustapena, hezkuntza*

Dada la importancia que tiene la lectura en los niños, durante años se han llevado a cabo en el ámbito escolar diferentes técnicas para fomentar la lectura. Hoy en día, en cambio, muchos consideran las Tic las nuevas enemigas de la lectura, las cuales tienen cada vez más presencia en las escuelas. Por ello, se rechaza la contribución que pueden hacer a la hora de promover la lectura en los niños. Mediante este trabajo, por lo tanto, además de analizar la importancia que se le da al fomento de la lectura en Educación Infantil y Primaria, se estudiará la presencia que tienen las Tic en las técnicas y experiencias que se desarrollan a la hora de crear niños lectores, teniendo en cuenta para ello las opiniones y posturas de los profesionales.

*Palabras clave: Lectura, Tic, fomento de la lectura, educación*

Due to the importance that reading has on children, for a long time different techniques have been carried out to promote reading in the field of education. However, nowadays Ict are considered the new enemies of reading and its presence has increased in schools. Therefore, the contribution that they could make to promote reading is rejected. The aim of this work is either to analyse the importance of promoting reading on nursery and Primary Education and to research on the presence of Ict, on techniques and experiences that are developed when creating reader children, taken into account the opinion and stance of professionals.

*Keywords: Reading, Ict, promotion of reading, education.*

## 1. JUSTIFIKAZIOA

Irakurketari eskaintzen zaion denbora guztiz onuragarria izateaz gain, gozatzeko tresna paregabea da bai haur zein helduentzat eta, ondorioz, txikitatik irakurketarekiko jarrera baikor eta grinatsua eraikitzea garrantzitsua da guztiz. Hezkuntza eremuan, arreta horretan jarri delarik, haurrengan irakurzaletasuna sustatzeko teknika zein esperientzia ezberdin eta anitzak jarri izan dira martxan duela zenbait hamarkada. Ekimen hauek beti egon dira haurren behar, nahi zein ezaugarrietara egokituta eta gizarteko aldaketek ere baldintzatu izan dituzte.

Horregatik, lan honen bidez, haurrak irakurzaletzeko (Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako etapan daudenak) esperientzia eta teknikek eskolan duten presentzia maila aztertzeaz gain, gaur egungo gizarteko ezaugarrietara zer mailatan egokitu garen ikertu nahi da, horren isla argi bezala IKTen erabilpena ezarriz. Izan ere, teknologia berrien hedapen geldiezin hezkuntza eremura iritsi zaigu eta IKTak haurren ikas prozesuaren oinarri garrantzitsu bilakatu dira, zeintzuek haurrentzat egunerokotasuneko eginbeharrak gauzatzeko orduan presentzia handia duten.

Bestalde, jakina da irakasle askok haurren irakurzaletasunaren etsai gisa ikusten dituela IKTak. Ondorioz, gaur egun erabilera horri lotutako aurreiritzi eta beldurrak errealak diren eta zeintzuk diren ikusi nahi da. Horregatik, ikerketa irakurzaletasuna sustatzeko orduan IKTez egiten den erabilera eta hezkuntza eremuko langileen (haurren tutoreen) iritzia zein den aztertzea bideratu da.

Azterketa gauzatzeko bi zentro ezberdinetan tutore diren profesionalen esperientziak eta usteak hartu dira kontuan. Informazio hori jasotzeko, aipatutako irakasleek bete behar izan duten galdeketa bat erabili da. Hala ere, lehenago haurrengan irakurketa garrantzitsua zergatik den eta irakurzaletasuna sustatzeak berekin zer dakarren azaltzen da. Gainera, IKTak irakurzaletasuna sustatzeko orduan baliagarriak direla frogatzea bideratutako azterketa bibliografikoa aurkezten dugu lan honetan.

## 2. HELBURUAK

### 2.1. Helburu orokorra

- Haur eta Lehen Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzeko teknika gisa zein esperientzietan IKTen presentzia zer nolakoa den aztertzea.

## 2.2. Helburu zehatzak

- Irakurzaletasuna sustatzeko teknikak eskola eremuko egunerokotasunean zer nolako presentzia duten aztertzea
- Haur txikienekin (Haur Hezkuntzan) irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantzia zer nolakoa den eta horretara bideratuta dauden ekimenen presentzia maila aztertzea.
- Irakurzaletasuna sustatzeari dagokionez IKTen erabilpen maila eta erabilera zer nolakoa den aztertzea: oinarria, jarduera gehigarria, bideratzailea, laguntzailea...
- Irakaslegoaren artean irakurzaletasuna sustatzeko IKTen erabileraren inguruko jarrera zer nolakoa den aztertzea
- Irakasleriaren partetik IKTen inguruan prestakuntza edo formakuntza jasotzeko alde zuzeneko jarrera zer nolakoa den aztertzea.

## 2.3. Hipotesiak

- Irakurzaletasuna sustatzeko esperientziak gauzatzeari bermea ematen omen zaion arren, errealitatean bigarren plano batean geratzen dira, eta are gehiago Haur Hezkuntzako etapan.
- IKTek eskolan daukaten presentzia nahiko handia da gaur egun eta haurren ikas prozesuaren bideratzaile edo tresna laguntzaile gisa erabiltzen hasi dira. Hala ere, irakurzaletasuna sustatzeari dagokionez ez dira gehiegi erabiltzen eta irakasle askok hauen erabilpenaz mesfidati izaten jarraitzen du.
- Irakurketarekiko gozamina eta teknologia berrien erabileraren arteko amildegia handia izaten jarraitzen du.
- Uztarketa honetatik abiatuta egin daitezkeen ekarpenak ahalbidetzeko hezkuntza eremuan egindako aurrerapausuak oso handiak izan ez direla uste da.

## **3. MARKO TEORIKOA**

### **3.1. Irakurketaren garrantzia haurren garapenean**

Irakurtzeari eskaintzen diogun denbora benetan osagarri eta mesedegarri den zerbaiti eskaintzen dioguna izateaz gain, gozagarria den zerbaitetarako erabiltzen duguna da. Izan ere, irakurketaren bidez gure jakintzak zabaldu, mundu ezberdinak

ezagutu, norberaren zein inguruko ezagutzan lagundu eta egoera ezberdinetan abentura ikaragarriak bizitzeko aukera izaten dugu (Marchesi, 2005). Gainera irakurketak haurren garapen kognitibo eta afektiboan (sentimenduak, emozioak... zein beste edozein prozesu afektibo irakurketaren alderdi direlarik) modu zuzen batean eragiteaz gain, euren ikas prozesua baldintzatzen duela frogatuta dago.

Istorio baten narrazioak ikuspuntu edo perspektiba ezberdinak kontutan hartzen laguntzen dio haurrari eta baita pentsatzeko, bizitzeko eta hazteko modu anitzak daudela barneratzen ere. Beraz, esan daiteke irakurketaren bidez norberarentzat ezezagunak diren bizitzetan murgiltzeko aukera eskaintzen dela eta, modu horretan, hurrek aniztasun kultural zein pertsonalaren aurrean errespetuzko eta onarpenezko izaera eraikitzen dutela, enpatiazko izaera eraikitzen laguntzen diela hain zuzen ere. Irakurketak haurren enpatiaren garapenean modu zuzen batean eragiten duela frogatu dute bi psikologo kognitibok: Kanadako York Unibertsitatean dabilen Raymond Mar-ek eta Keith Oatley-k, Torontoko Unibertsitateko irakasle emeritua denak. Prestigiodun “Time” aldizkari estatubatuarrean argitaratutako ikerketa honen bidez irakurketak izaera eta emozioak zein nortasuna aldatzen dituela baieztatzea lortu dute. Horren zergatia argi azaltzen dute bi aditu hauek: pertsona irakurleek emozioak modu azkarrago batean antzeman eta erraztasunez bilakatzen dituzte eurenak, enpatiaren garapenari mesede eginez (R.A. Mar eta K. Oatley, 2009).

Jarrantzeko, irakurketak dakartzan onurak plazaratze aldera, ezin da ahaztu zer nolako garrantzia duen haurren ikas prozesuaren garapenari dagokionez. Kazetari, idazle eta irakasle den Ana María Machadoren (2005) iritziz, kontaketa zentzuzkoa denaren bilaketan datza eta narrazio batek, kohesioa izan dezan, ezin konta ahalezko zatitan bereizita dagoen kaosa ordenatzea eskatzen du (Marchesi, 2005). Emakume honen hitzak jasoz:

Leer una narración es un ejercicio permanente de examinar posibles alternativas, de intentar percibir sutiles indicios y no dejarse ilusionar por pistas falsas, de desechar impertinencias, de identificar eventuales aliados o adversarios, de reconocer obstáculos y procurar salvarlos, de proyectar salidas visibles, de sopesar bien todas las circunstancias que pueden modificar una acción. Para ello es necesario tener en mente lo que ya se leyó antes, ir llegando a algunas opiniones sobre la psicología de los personajes, tener una determinada imagen espacial del escenario donde se desenvuelve la trama, prestar atención a las coordenadas temporales y a cuestiones de

simultaneidad y de «sucesividad», evaluar la probabilidad de relaciones de causalidad, observar el sentido general en el cual se desarrolla la acción.

Ildo beretik Brunerrek (1997) narrazioak geure bizitza zein kulturei bateratasuna ematerako orduan zer nolako ahalmena duen azpimarratzen du. Psikologo eta biologo ingelesak narrazioa esanahiak eraikitzekeo tresna gisa definitzen du, ez gizarte zientziei edo alderdi pertsonalari dagokienez soilik, baita alderdi logiko-zientifikoari lotuta ere. Horrez gain, narrazioa pentsamendu modu bat dela baieztatzen du (Marchesi, 2005).

### **3.1.1. 0-6 urteko haurrengan irakurketa lantzearen garrantzia**

Duela gutxira arte haur jaio berriekin irakurketa lantzeak garrantzi handirik ez zuela pentsatu izan da. Izan ere, bizitzako lehenengo urteetan haurrek duten testuak dekodifikatzeko gaitasun ezak irakurketa haiekin lantzeari lehentasuna kentzen omen dio. Baina irakurtzen ikasi baino lehen haurrak ipuinen bidez sentitzeko, ikusteko eta entzuteko gai dira eta zentzuen bidez istorioenganako eta liburuenganako gustua garatzen eta areagotzen dute. Horrela, haurrak istorioen beharrek jaiotzen dira, hitzarekiko estimulazioa beharrezkoa dute (idatzizkoa zein ahozkoa). Txikitatik eskaini behar dizkiegu hauek garatzeko aukerak: abestien, ipuinen, hitz jokoen... bidez. Gainera haurren interesen eta gaitasunen garapena oso azkarra da euren lehenengo bizitza urteetan eta frogatuta dago haurren liburuenganako kontaktu goiztiarrak irakurketarenganako interesa pizten duela (modu egokian eginez gero). Gainera, psikologo ezberdinak bateratasunera iritsi dira haurrek ekintza ludikoak behar dituztela baieztatzean (lehenengo bizitza urteetan batez ere). Beraz, ipuinak baliabide ezinhobeak dira horretarako eta ikuspuntu ludiko batetik landu behar dira, kultura transmititzeko tresna baliagarritzat ikus baikenitzake, haurrentzat ingurunea ezagutzeko baliabide eta afektibitate iturri paregabe gisa (E. Hervas, 2008).

Jarraitzeko, esan daiteke gizakia jaiotzen den momentutik bertatik hasten dela irakurtzen. Haurrak 3 urte bete baino askoz lehenago bereganatzen du kontzientzia fonologikoa eta jaiotzen den momentutik bertatik bizitzen dituen heziketa praktiken bidez 0 urteko haurra ere hasten da irakurtzen ikasten, letrak dekodifikatuko ez dituen arren. Izan ere, 0-3 urteko haurren ikas prozesuan zein garapenean manipulazioa eta esperimendazioa ezin baztertuzko jardunak dira eta, beraz, letren, soinuaren, esanahien, ipuinen... inguruko esperimendazioa sustatzea ezin da baztertu (M. Soler, 2013).

Aldi berean, ahozko hizkuntzarekin jolastean zein entzunaldiak egitean, ipuinak eta liburuak ulertzen eta horiez gozatzen hasiko dira. 0-6 urte bitarteko haurrak ez du irakurtzeko, hau da, letrak dekodifikatzeko zein irakurketa prozesuak eskatzen dituen tresnak erabiltzeko gaitasunik izango. Baina hurbileko helduekin interakzioan ibiliz eta esperimuntazioaren bidez irakurketarekiko lotura ezarri ahalko du: ilustrazioak behatuz, orrialdeak pasaz, ozenean entzunaldiak eginez, irakurleak egindako keinu zein soinuei erreparatuz, istorioen aurrean parte hartzeko gogoia izanik eta bere pentsamendua garatuz... Beraz, adin honetan abestiek, lo kantek, hitz jokoek, ipuin kontaketak... osatuko dute literaturaren munduarekin haurrak izango duen harremana (Mexikoko Hezkuntza Sustapen Kontseilu Nazionala, 2011).

Bestalde, haur txikiak irakurketaz gozatzen hasiko dira hori estimulazio afektiboa bereganatzeko moduetariko bat izango delako. Horrela, erlazio emozionala izango du irakurketarekiko (eta irakurketarekin zerikusia duen edozein ekintzarekiko). Robert Escarpit-ek (1968) adierazi zuen bezala: “Probablemente, es durante esa etapa (infancia preescolar) de la vida cuando nacen las actitudes fundamentales para con el libro... [...] Resulta, pues, sumamente importante que el libro se introduzca en la vida del niño antes de la edad escolar y se inserte a partir de ese momento tanto en sus juegos como en sus actividades cotidianas.”

Haurrek irakurketarekiko eraikiko duten erlazioak jaio aurretik zein sehaska garaian ditu hastapenak (lehenengo liburua manipulatzeko edo errimak, lo abestiak... entzuten hasten diren momentu berean). Horrela, ipuinak haur txikien pentsamendu kritikoaren zein sormenezko eta irudimenezko pentsamenduaren eraketan modu zuzen batean hartzen du parte eta, ondorioz, adierazteko era ezberdinak eskainiko dizkio. Horrez gain irakurketaren bidez ekintzei aurreratzen eta jarraipenak egiten ikasiko du, egiazkoaren eta asmatutakoaren arteko erlazioa eraikiko du, pentsamenduaren lengoia garatuko du... Beraz, haur txikiaren garapen prozesuan ipuina ikas tresna ezin hobetzat jo daiteke lehenengo bizitza urteetan oso baliagarria baita emozionalki zein sormenari dagokionez gara dadin (Escalante eta Caldera, 2008).

### **3.2. Irakurzaletasuna sustatzea**

Irakurketa lantzearen helburu bakarra ez da testu idatziaren ulermen soila izan behar, hezkuntza eremuan irakurketaren zentzu mugatu horretatik haratago jo eta



ikasleek narrazio, olerki eta istorioekin disfrutaztera bultzatzen saiatu behar dugu (Marchesi, 2005).

Gure gizartean irakurketa ez da normalizatuta dagoen jarduna, ez baitago lehenengo mailako giza eskubide bezala ulertu zein onartua eta aisialdi denboran gauzatu daitekeen ekintza garrantzitsutzat ez baita jotzen. (Cerrillo, 2005). 2004. urtean argitaratutako Espainiar Estatuaren inguruko azterketa batean (datuak 2002. urtekoak baziren ere) haur zein nerabeek aisialdirako denbora tartetan egiten dituzten ekintzen artean irakurketa azken aurreko postuan kokatzen da “ezer ez egitearen” aurretik (Marchamalo, 2004). Ondorioz, oraindik ere ikusten da haur zein gazteak irakurzaletzeko beharra. Baina zertan datza pertsona bat irakurzale izateak?

Juan Matak (2004) adierazten duenaren arabera, idazkiak irakurtzeko gaitasuna izateak ez dakar berekin irakurle izatea. Bere hitzen arabera argi dago irakurtzen jakiteak irakurle izatea baldintzatzen duela baina irakurtzen ikasteko prozesuak ez du zertan benetako irakurle bilakatzean eragin. Irakurtzeko nahia heziketa eta borondatearen, zori eta gurariaren, emozio eta harriduraren arteko konbinazioa da. Beraz, alfabetatzearen (irakurtzeko prozesua barneratzearen) eta irakurle edo irakurzale izatearen arteko bereizketa egitea ezinbestekoa da, askotan nahastu egiten baitira kontzeptu hauek.

“ABC definizioa” izeneko web orrialdean irakur daitekeenez, non alor ezberdinetako adituek sorturiko definizioak aurki daitezkeen eta “irakurketa”, “idatzizko ulermena” edo “irakurle” bezalako kontzeptuak definitzen diren, “alfabetatzea” idazten eta irakurtzen ikasteko gaitasunak barneratzeko prozesua da. Beraz, alfabetatzeaz ari garenean ahozko hizkuntzaren adierazle diren zeinu grafikoak erabiltzeko eta ulertzeko gaitasuna barneratzeko prozesuaz ari gara, material idatzi eta inprimatuak sortu zein dekodifikatzeko giza gaitasuna barneratzeaz hain zuzen ere. Irakurketa eta idazketa prozesuen irakaskuntzak betidanik izan du lehentasuna hezkuntza esparruan jardun linguistiko, kognitibo zein soziokulturalak barneratzeko prozesua errazten baitute (Lomas, 2003).

Irakurle izatea, ordea, horrela definitzen da “ABC definizioa” webgunearen arabera: “Irakurlea liburua, egunkaria, aldizkaria, dokumentua... irakurtzen duen gizabanakoa da, ahoz gora zein bere golkorako egin dezakeena. Irakurle, normalean, irakurketarekiko benetako interesa erakusten duen horri esaten zaio, uneoro interesezko

materialak irakurtzeko grina duenari eta entretenitzeko, informatzeko eta ikasteko egiten duenari”. Ramón Luis Herrera Rojasek benetako irakurlea liburu zein beste edozein idatzizko euskarriren aurrean erlazio egonkor, aske eta interesduna duen pertsona dela adierazten du, zeinek horrenganako hainbesteko motibazio eta behar maila duen, irakurketaz gozatzeko denbora bila dabilen beti, ez baitu bera gabe bizitza ulertzen (León Pino, 2013).

Ondorioz, irakurzaletasuna sustatzeak (hainbat eta hainbat definizio ezberdin jaso izan dituen arren) funtsean haurrak irakurle bilaka daitezen helburu izanik aukera eta esperientziak erraztean datza. Beraz, ekintza hauen bidez lortu nahi dena haurren artean (etorkizuneko heldu direla kontuan hartuta), irakurketa ohiturei dagokienez, gorakada eta oparotasuna da eta ez, kasu honetan, irakurketa gaitasuna bereganatzea. Liburuen edo irakurgaien aurrean jarrera baikorra sustatzea izango du oinarritzat, horren bidez irakurketaz gozatzeko aukera eskainiz (Gomez-Villalba eta Nuñez, 2007). Laburbilduz, irakurzaletasuna sustatzearen bidez haurrek irakurketarekiko motibazio eta gozamen sentimendua zabalarazi nahi da, gustuz gauzatutako ekintza bati esker horrek dakartzan onura guztiak eskura ditzaten eta etorkizunean ere irakurle amorratu izan daitezen.

### **3.3. Gaur egungo erronka: irakurzaletasuna eta IKTak**

Duela lau hamarkada inguru irakurzaletasuna bultzatzeko beharra gizartea pairatzen ari zen izugarritzko aldaketen ondorioz ikusi zen. Gaur egun, teknologia berrien izugarritzko aurrerapenen eta ikus entzunezko hedabideen indarraren gorakada geldiezinak antzeko egoera batean aurkitzen garela ekartzen digu burura. Horrela, irakurzaletasuna sustatzeak eta, ondorioz, haur eta gazteak irakurle porrokatu bilakatzeak etsai berri eta indartsu bat omen du hezkuntza eremuan: informazio eta komunikazio berriak (IKTak). Gizarteko kide askoren arabera, euren ezaugarriak direla medio, zaila egiten da hauen erabilera irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina eta proiektuetan txertatzea. Beraz, IKTak irakurketaren etsai zein literaturaren alorrean muga berri gisa ikusten dituzte askok. Baina errealia al da mesfidantza eta beldur hau? Edo ezezaguna den eremu eta uztarketa baten aurrean sortzen diren aurreiritzi eta ezjakintasunak eragindako usteak dira?

Gai honen inguruan burua astintzean, galdera egiten diogu gure buruari: “irudi

mugikorrek” gaur egun duten indarra kontutan hartuta, nolakoak izango dira hamar urte barru, esaterako, gaur egungo gazteen irakurketa ohiturak? Aditu askok duda gabe baieztatzen dutenaren arabera, “liburuak” ordezkagaitza izaten jarraituko du. Hori bai, ziurrenik, zenbait urteren buruan, liburua ez da gaur egun ezagutzen dugun bezalakoa izango: oinarri inprimatutik oinarri informatikora pasako da, testua pantaila baten bidez irakurri ahalko dugu... baina testu idatziak bertan jarraituko du (Lomas, 2002). Horregatik, hezkuntza eremuan haur eta gazteei mugak jarri beharrean atek zabaltzea onuragarria da, ICTak irakurketaren “etsai” bilakatzetik tresna lagungarri gisa ikustera pasatzea hain zuzen ere.

Joaquin Paredesek (2005) ere, beste aditu askok bezala, ICTak irakurzaletasuna pizterako orduan lagungarri izan daitezkeela uste du. Zera baieztatzen du: teknologia berrien erabilera beste edozein motatako tresna kultural bezala jota, hauek ekiditeak hutsune bat sortuko lukeela, bereizketa gertatuko litzatekeela erabiltzen dituztenen eta ekiditen dituztenen artean. Bere iritziz, eskola zein liburutegi publikoek aukera daukate etxeetan oinarri digitalik ez duten pertsonak hauetaz disfrutatzeko aukera eskaintzeko, baina modu natural eta aktibo batean erabili beharko liriateke. Praktika errealetan ikusi den bezala, Haur Hezkuntzako irakasleek ICTak egunerokotasunean gauzatzen diren jarduerekin zerikusia duten tresna osagarri gisa aurkezten ditu, erakargarritasuna gehitzeko eta lanak jolas kutsua har dezan. Era berean, Lehen Hezkuntzan teknologia berriak proiektu askotako oinarri bezala erabiltzen dira: ipuinak asmatuz, blogak eratzuz, kontaketak entzunez, irakurriz zein idatziz... Irakurketarekiko motibazioa sustatzeko erabiltzen diren bestelako tresnen eginkizuna ematen zaie ICTei beraz eta, aldi berean, gure gizarteko aurrerapen eta egoerara egokitzea lortzen da.

Horretaz jabe egin da Eusko Jaurlaritzako Kultura saila, zeinek Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urtean aurkeztutako Irakurketa Planean haur, gazte zein helduei zuzendutako proiektuak plazaratu dituen irakurzaletasuna sustatzeko tresna nagusi gisa ICTak ezarriz. Bertan azaltzen denaren arabera, irakurketa egungo garaietara egokitzeko beharra ikusteak bultzatuta, zeregin garrantzitsua izango dute ICTek proiektuotan. Irakurketaren ekosisteman aldaketa sakonak gertatzen ari direla kontuan hartu eta hauetara egokitzeko aurrerapausua egin du Kultura Sailak, irakurketa-indizeak eta euskal liburutegi-azpiegiturak baztertu gabe. Horrela, ekosistema digitalean sartuta, irakurketa eraldatzeko lehenengo pausoak ematen hastea dute helburu.

## 4. METODOLOGIA

Haur eta Lehen Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzeko teknika eta esperientzietan IKTek duten presentzia zer nolakoa den aztertzeko izaera kuantitatibodun azterketa egiteari ekin zaio. Hori galdeketa baten bidez bideratu da, zeinen bidez udalerrri bereko bi zentrotan irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantzia zer nolakoa den eta horretarako gauzatzen diren ekimenetan IKTak zer mailatan erabiltzen diren aztertu nahi izan den. Informazioa biltzeko erabilitako inkestan, beraz, ahalik eta datu esanguratsuenak eskuratzera bideratutako galderak plazaratu dira, orokorrean galdera itxiak izan direlarik. Izan ere, emaitza argi eta zehatzen eskuraketa ahalbidetu nahi izan da.

### 4.1. Parte-hartzaileak

Azterketa hau gauzatzeko Getxoko Udalerriko (Bizkaia) auzo ezberdinetan aurki daitezkeen bi eskolatako Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleriaren %95,1ek hartu du parte, 39 irakaslek hain zuzen ere. Haur Hezkuntzako etapan lanean dabiltzan 17 irakasleren (parte-hartzaileen %43,6) eta Lehen Hezkuntzako etapan tutore diren 22 irakasleren (parte-hartzaileen %56,4) partaidetza eman da. Bi sexuen arteko desoreka nabarmena izan da, izan ere, parte-hartu duen irakasleriaren %89,7 emakumezkoa izan da eta gainerako %10,3 gizonezkoa. Azterketa ahalbidetu duen laginaren %56,4k irakasle izanda 21 urtetik gorako esperientzia urteak pilatzen ditu, %10,3k 11 eta 20 urte artekoak, %20,5ek 5 eta 10 urte artekoak eta %12,8k 0 eta 4 urte artekoak.

Aurretik esan bezala, azterketa Getxoko bi eskola ezberdinetan gauzatu da. Ikerketa lagin gisa eskola hauetako irakasleria aukeratzeko erabakia arrazoi ezberdinek bideratu dute: eskolen artean giroari dagokionezko desberdintasun nabarmenek eta bietan berrikuntzarako eta aurrerapenak egiteko ikus daitezkeen aurrejarrerek. Horrela, kalitatezko hezkuntza eskaintza emateaz gain, ikasleek aurrera egin dezaten ideia berritzaileak ezarri ohi izaten dira bietan.

Lehenengo ikastetxea (azterketan z1 izena aitziki zaio) eskola publiko txikia da (parte-hartzaileen %25,6), lerro bakarrekoa. Haur Hezkuntzako haurrentzako (2-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako haurrentzako (6-12 urte) hezkuntza eskaintza ematen da soilik, esan bezala, maila bakoitzeko gela bakarra dagoelarik. Bertan “D” ereduko hezkuntza eskaintza bermatzen da. Aurten, berrikuntza gisa, Lehen Hezkuntzako gela bakoitzean

arbela digital bana kokatu dute. Horrez gain, Haur Hezkuntzako gela bakoitzean ordenagailuak aurki daitezke eta “bideo gela” deritzon gelatxoa daukate erabilgarri eraikinean, non ikus entzunezko produkzioak ikusteko aproposa den.

Bigarren ikastetxea (azterketan z2 izena axiki zaio), ordea, guraso kooperatiba da, non urte batetik abiatu eta hamasei urtera arteko hezkuntza eskaintza bermatzen den, “D” ereduan betiere. Ikasle kopuru handia biltzen duen ikastola izanik, hiru lerrokoa da eta, horrez gain, urte beteko zein bi urteko haurrei haur eskola zerbitzuak eskaintzen zaizkie. Ikastola honetan, gaur egun martxan dauden proiektuen artean, IKT proiektua aurki dezakegu, zein bi eremu ezberdinetan gauzatzen den: alde batetik, ikasleen prestakuntzara bideratuta eta, bestetik, ikastolaren kudeaketa gauzatzera bideratuta.

#### **4.2. Tresna**

Irakaslegoaren esperientzia errealetan oinarritutako azterketa izanik, eskola ezberdinetako irakasle taldeari galdera itxiz osatutako inkesta txiki bat pasa zitzaion (ikus. 1. eranskina). Lehenagotik aipatu bezala, inkesta honen funtsa irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantzia eta horrekiko IKTen lotura zer nolakoa den aztertzeke datuak biltzea izan da. Horregatik, galdeketa helburu ezberdinak erdiestera bideratutako galderek osatutako blokeak bereizten dira, hiru hain zuzen ere.

Lehenengo blokea edo galdera multzoa elkarrizketatuen sailkapenerako baliagarri den informazioa eskuratzera dago bideratuta. Kontuan hartu behar da parte-hartzaileen anonimotasuna mantentzeko nahi izan dela eta, ondorioz, intimitatea zein ezkutuko identitatea agerian utziko luketen galderak ekidin direla. Horrela, lehenbiziko blokean aurki daitezkeen galderak honakoak dira, besteak beste: sexua, adina, ikasketak, etapa, irakasle izandako esperientzia urteak...

Bigarren blokea irakurzaletasuna sustatzearekin zerikusia duten galderek osatzen dute. Alde batetik, bakoitzak irakurzaletasuna sustatzeari zer nolako garrantzia ematen dion eta errealitatean jardun honi eskaintzen dion denbora zer nolakoa den aztertzeke bideratutako galderak ageri dira. Bestetik, irakasleriak Haur Hezkuntzako etapan irakurzaletasuna sustatzearen inguruan zer nolako iritzia duen azaleratzeko prestatutako galdera aurki daiteke.

Hirugarrena eta azkena den blokea irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTen presentzia maila zein den eta irakasleriak informazio eta komunikazio teknologien

inguruan duen ikuspuntua nolakoa den aztertzeraz dago zuzenduta. Horrela, profesionalak gaur egun IKT-ez zenbat eta nola baliatzen diren galdetzez gain, bakoitzaren iritziaren eta formakuntza nahiaren inguruko galderak aurki daitezke.

### **4.3. Prozesua**

Azterketa egoera ezberdinak bizi dituzten bi eskolatan gauzatu da modu honetan emaitzak errealagoak jasotzeko asmoz. Bi zentroetan aste beteko denbora tartean pasa ziren inkestak, astelehenetik ostiralerako bermea eskainiz eta betetzeko prozesua askea izan zen, hau da, zentro bakoitzean erabaki zen irakasle bakoitzak bere kontura bete edo elkarketa momentu batean egin. Argi utzi zitzaizen bakarrik inkestak pertsonalak zirela izan zen, bakoitzaren iritzi eta esperientzia errealak islatzeko eskatuz. Galdeketa gauzatzeko aukera zegoen ziurtatzeko, eskoletako zuzendari eta koordinatzaileekin kontaktuan jartzea ezinbestekoa izan zen. Hauek inolako oztoporik jarri ez zuten, astelehen batean etapa ezberdinetako koordinatzaileei inkestaren inguruko nondik norakoak azaldu eta zalantzak argitu eta gero, inkesta orriak bertan utzi ziren irakasleek bete zitzaten. Arazoak zein zalantza berriak sortzekotan harremanetan jarraitzeko telefono zenbaki zein posta elektronikoko helbide bat erraztu zitzaizen.

Parte-hartzaileek betetako inkestak jaso ondoren, datuen prozesaketa programa estadistiko informatikoa den “SPSS” programaren bidez gauzatu da.


## **5. EMAITZAK**

### **Irakurzaletasunaren sustapena eskolan**

Gaur egun Haur eta Lehen Hezkuntzan tutore bezala lanean ari diren profesionalak beraien iritzi bakoitzari dagokion hezkuntza mailan irakurzaletasuna sustatzeak zer nolako garrantzia duen galde egiterako orduan, emaitza ezberdinak azalatu dira. 0tik 10erako eskala batean, non 0k inolako garrantzirik ez duela eta 10ak berebiziko garrantzia duela esan nahi duten, irakurzaletasunaren sustapenaren inportantzia maila ezberdinetan kokatzerako orduan profesional taldearen %2,6k 4ko balioa eman dio, %20,5ek 6 eta 7 artekoa, %17,9k 8koa, %15,4k 9koa eta %43,6k 10ekoa (ikus. irudia 1). Ikus daitezkeen bezala, irakaslearen ehuneko txiki batek garrantzi gutxi ematen dion arren, ehuneko altu batek lehentasunez gauzatu beharreko


praktikatzat ikusten du irakurzaletasunaren sustapena eta gainerakoek, berebiziko garrantzirik ematen ez dioten arren, praktikan jarri beharreko eremutzat daukate.

Irudia1: Irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantzia (orokorra) (%)




Etapak bakoitzak ezaugarri ezberdinak biltzen dituela kontuan hartuta, analisi bera Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen iritziak alderatuz egitean, lehenengoan artean aniztasun handiagoa nabaritu da (ikus. irudia 2): %5,9k 6ko balioa eman dio irakurzaletasuna sustatzeari, %23,5ek 7koa, % 23,5ek 8koa, %35,3k 9koa eta %11,8k 10ekoa. Horrela, Haur Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzea baztertzen ez den arren, ehuneko handi batek ez du lehentasunen artean kokatzen. Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, ordea, kontrako muturretara bideraturiko jarrerak aurki badaitezke ere, ehuneko handi batek irakurzaletasuna sustatzeari 10eko balioa ematen dio 0tik 10erako eskalan. Garrantzi gutxi ematen dion irakaslerik dagoen arren (%4,5ek 4ko balioa eman dio), gainerakoek eskalaren goiko aldean kokatzen dute: %13,6k 7an, %13,6k 8an eta %68,2k 10ean. Ikus daitekeen bezala, beraz, Lehen Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzea ekintza garrantzitsuenetarikotzat duten irakasle kopurua Haur Hezkuntzako baino nabarmen handiagoa da.

Irudia2: Irakurzaletasunari ematen zaion garrantzia (0tik 10era), etapak bereizita



Bestalde, bi eskoletako tutoreei egunerokotasunean hurrekin irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen dioten denbora zenbatekoa den galdetzean, %71,8k egunero zerbait egiten duela baieztatu du. Gainerakoek, irakurzaletasuna sustatzeari denbora astero (%15,4k), noizbehinka (%7,7k) eta gutxitan (%5,1k) eskaintzen diotela erantzun dute. Hala ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapan artean bereizketa egitean, emaitza azpimarragarriak azalera dira (ikus. irudia 3). Haur Hezkuntzako etapan lanean dabilzan profesionalen %76,5ek besterik ez dio irakurzaletasuna sustatzeari denbora egunero eskaintzen. Gainerako %17,6k astero egiten du zerbait eta %5,1k noizbehinka. Lehen Hezkuntzan dabilzan irakasleek irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen dioten denborari dagokionez, ordea, nahiko zabala dela esan liteke: %68,2k egunero egiten du zerbait eta %13,6k astero. Ekimenen bat noizbehinka edo gutxitan gauzatzen duen irakasle multzoak %18,2 osatzen du, %9,1 bakoitzak. Emaitzak ikusita bi etapan artean ematen den aldea deigarria da. Izan ere, Haur Hezkuntzako emaitzak asaldagarriak ez badira ere, etapa honetako ohiko lan dinamika eta metodologia zein den kontuan hartuta, irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen zaion tartea txikiagoa izatea azpimarragarria da.

Irudia3: Irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen zaion denbora, etapak bereizita



Bestalde, bi eskolako irakasleei irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen dioten denborarekin ados dauden galdetzean %51,3k ezezko erantzuna eman du eta %41ek baiezkoa. Datu hauek aurretik emandakoeekin lotzerako orduan irakurzaletasuna sustatzeari denbora egunero eta astero eskaintzen diotenen artean datu interesgarriak geratu dira agerian (ikus. taula 1). Lehenengo taldea osatzen duen irakasleen %53,6 ados dago egiten duenarekin baina gainerako %39,3 ez, gehiago egin beharko lukeelako iritzia daukalarik. Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak astero gauzatzen dituztenen




%16,65, bestalde, ados dago egiten duenarekin baina gainerako %66,7 ez. Zerbait noizbehinka edo gutxitan egiten duten irakasle guztiak gehiago egin beharko luketelako iritzia daukate.

Taula1: Irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen zaion denbora eta adostasun maila

| Irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen zaion denbora | Eskaintzen zaion denborara nahikoa da... |             |                   |
|---|--|-------------|-------------------|
|   | Ados (%)                                 | Ez ados (%) | Erantzunik ez (%) |
| Egunero (%71,8)                                       | %53,6                                    | %39,3       | %7,1              |
| Astero (%15,4)  | %16,65                                   | %66,7       | %16,65            |
| Noizbehinka (%7,7)                                    | %0                                       | %100        | %0                |
| Gutxitan (%5,1)                                       | %0                                       | %100        | %0                |

Galdera berdinen inguruan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak aztertzean, aurreko kasuetan ikusi bezala, emaitza ezberdinak geratu dira agerian (ikus. irudia 4). Haur Hezkuntzako irakasleen %70,6 irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen dion denborarekin ados dago, %17,6k gehiago egingo luke eta %11,8k ez du erantzunik eman. Lehen Hezkuntzako irakasleek emandako erantzunen emaitzak, ordea, alderantzizkoak dira: irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen dioten denbora nahikoa dela %18,2k besterik ez du uste, %77,3k gehiago egingo luke eta %4,5ek ez du erantzunik eman.

Irudia4: Irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen zaion denbora, etapak bereizita




### Irakurzaletasunaren sustapena Haur Hezkuntzan

Irakurzaletasuna haur txikiengan sustatzeari zer nolako garrantzia ematen zaion aztertzeko irakasle guztien iritzia hartu da kontuan. Horrela, beraien aburuz, Haur Hezkuntzako etapako hurrekin irakurzaletasuna sustatzea garrantzitsua zenbateraino den 0tik 10erako eskalan kokatzean, zeinetan 10ak gehiengo balioa adierazten duen,


%10,3k 7ko garrantzia eman dio, %20,5ek 8koa, %20,5ek 9koa eta %38,5ek 10ekoa (ikus. irudia 5). Irakasle taldearen alde handi batek, beraz, haur txikienekin irakurzaletasuna sustatzeak garrantzi handia duela uste du eta gainerakoek, lehentasunezko alderdia dela uste ez duten arren, kontutan hartu eta jorratu beharreko eremua delako iritzia daukate.

Irudia5: Haur Hezkuntzako haurrekin irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantzia (%)



Baina galdera berdinen erantzunak Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen iritzia bereiziz aztertzean, emaitzak honakoak izan dira (ikus. irudia 6): gaur egun Haur Hezkuntzako irakasle direnen %23,5ek irakurzaletasuna haur txikienekin sustatzeari 7ko balorazioa eman dio, %29,4k 8koa, %35,3k 9koa eta %11,8k 10ekoa. Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, ordea, %13,6k irakurzaletasuna 2 eta 6 urte arteko haurrekin sustatzeari 8ko balorazioa eman dio, %9,1ek 9koa eta %59,1ek 10ekoa. %18,4k ez du inolako erantzunik eman azken hauen artean.

Irudia6: Haur Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantzia, etapak bereizita.



Haur Hezkuntzako irakasleen iritzietan zentratze aldera, etapa honek biltzen dituen adin ezberdinetako haurrekin irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantziaren inguruan ezberdintasun nabarmenak dauden aztertzeko, 2, 3, 4 eta 5 urteko irakasleei dagokien geletan irakurzaletasuna sustatzeak zer nolako garrantzia duen galdetu zaie (ikus. taula 2).

Taula2: Haur Hezkuntzako irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantzia, adineko (%)

| Gela (HH)     | Irakurzaletasunari ematen zaion garrantzia (0tik 10era) |     |     |     |     |
|---------------|---|-----|-----|-----|-----|
|               | 6   | 7   | 8   | 9   | 10  |
| 2 urteko gela | %0  | %0  | %20 | %60 | %20 |
| 3 urteko gela | %0  | %0  | %75 | %25 | %0  |
| 4 urteko gela | %25   | %50 | %0  | %0  | %25 |
| 5 urteko gela | %0  | %50 | %0  | %50 | %0  |

Emaitzek adierazten dutenaren arabera, adinean gora egiten den heinean irakurzaletasunari ematen zaion garrantziak behera egiten du. 2 eta 3 urteko geletan 8tik 10erako balioen artean kokatzen da irakurzaletasuna sustatzeak duen garrantzia baina 4 eta 5 urteko geletan 6 eta 7 arteko balioa ematen dioten irakasle kopuruak gora egiten du nabarmen (4 urteko gelan %74k 6 edo 7ko balioa ematen dio eta 5 urteko gelan %50ek 7koa). Horrela, Haur Hezkuntzako etapa osatzen duten azken adin tarte bi hauetan zenbaitek irakurzaletasuna sustatzeari garrantzia ematen dion arren, bigarren plano batean geratzen dela esan liteke.

### **Irakurzaletasunaren sustapena eta IKTak**

Bi zentroetako irakasleei irakurzaletasuna sustatzeko IKTez baliatzen diren edo ez galdetzean pareko emaitzak azalerratu dira: %56,4k baiezko erantzuna eman du eta gainerako %43,6k ezezkoa. Hala ere, etapa bakoitzean irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTen presentzia zer nolakoa den aztertzean Haur Hezkuntzako etapan egiten den erabilpena Lehen Hezkuntzan egiten dena baino altuagoa dela ikusi ahal izan da (ikus. taula 3). Ikus daitekeen bezala, Haur Hezkuntzako irakasleen artean IKTak erabiltzen dituztenen eta erabiltzen ez dituztenen arteko aldea handia da baina Lehen Hezkuntzako irakasleen kasuan, bestalde, nahiko berdinduta daude IKTen erabilpena gauzatzen duten eta gauzatzen ez dutenen multzoak.

Taula3: Irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTen erabilpen maila, etapak bereizita

| Etapak          | IKTen erabilpena irakurzaletasuna sustatzeko |       |
|-----------------|--|-------|
|                 | Bai  | Ez    |
| Haur Hezkuntza  | %70,6  | %29,4 |
| Lehen Hezkuntza | %45,5  | %54,5 |

Zentro bakoitzaren ezaugarri eta egoerak ezberdina direla kontutan hartuta,

bakoitzeko irakasleak irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTez zein mailatan baliatzen diren alderatzean emaitza ezberdinak ikusi ahal izan dira (ikus. taula 4). Horrela, z1en irakurketarekiko jarrera baikorra sustatzeari begira egiten den IKTen erabilpen maila oso altua da (%80koa) eta z2n, ordea, pareko emaitzak azaleratu diren arren, ezezko erantzunak nagusitu dira %51,7ko portzentaia osatuz.

Taula4: Irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTen erabilpen maila, zentroak bereizita.

| Zentroak | IKTen erabilpena irakurzaletasuna sustatzeko |       |
|----------|--|-------|
|          | Bai  | Ez    |
| Z1       | %80  | %20   |
| Z2       | %48,3  | %51,7 |

Aipatutako zentroen arteko desberdintasunak are gehiago geratzen dira agerian zentro bakoitzeko etapa ezberdinetan irakurzaletasuna sustatzeko IKTen erabilpena zer nolakoa den aztertzerako orduan (ikus. taula 5). Z1en IKTen erabilpena egiten duen irakasle multzoaren %75 Lehen Hezkuntzako profesionalek osatzen dute eta ezezko erantzuna eman dutenen %100, ordea, Haur Hezkuntzako irakasleek. Bestalde, z2n alderantzizkoa gertatzen da: IKTen erabilpena egiten dutela baieztatu dutenen %71,4 Haur Hezkuntzako irakasle da eta ezezko erantzuna eman dutenen %80 Lehen Hezkuntzako.

Taula5: Irakurzaletasuna sustatzean IKTen erabilpen maila, zentro bakoitzeko etapak bereizita

| 1. zentroa |                 | IKTen erabilpena irakurzaletasuna sustatzeko |            |
|------------|-----------------|--|------------|
|            |                 | Bai (%80)                                    | Ez (%20)   |
| Etapa      | Haur Hezkuntza  | %25  | %100       |
|            | Lehen Hezkuntza | %75  | %0         |
| 2. zentroa |                 | Bai (%48,3)                                  | Ez (%51,7) |
| Etapa      | Haur Hezkuntza  | %71,4  | %20        |
|            | Lehen Hezkuntza | %28,6  | %80        |

6. taulan ikus daitekeen bezala, irakasleei irakurzaletasuna sustatzerako orduan zein IKT tresna erabiltzen dituzten galdetu zaienean %61,5ek tresna ezberdinak erabiltzen dituela baieztatu du, %10,3 ordenagailuaz baliatzen dela, %2,6 proiektoreaz, %2,6 arbela digitalaz eta gainontzeko %2,6 bestelako baliabide teknologikoez baliatzen dela erantzun dute. IKT ezberdinez baliatzen direla baieztatu dutenen artean erabilienak

ordenagailua (%95,8ko erabilpenarekin) eta Interneta (%91,7ko erabilpenarekin) nagusitu dira.

Taula6: Irakurzaletasuna sustatzean erabiltzen diren tresnak (%)

| Tresna            | Erabilpena (%) |                 |                |
|-------------------|----------------|-----------------|----------------|
| Ordenagailua      | %10,3          |                 |                |
| Proiektorea       | %2,6           |                 |                |
| Arbela digitala   | %2,6           |                 |                |
| Interneta         | %0             |                 |                |
| Bestelakoak       | %2,6           |                 |                |
| Bat baino gehiago | %61,5          | Tresna          | Erabilpena (%) |
|                   |                | Ordenagailua    | %95,8          |
|                   |                | Proiektorea     | %12,5          |
|                   |                | Arbela digitala | %20,8          |
|                   |                | Interneta       | %91,7          |

Hala ere, ezin da ahaztu arbela digitalak erabiltzeko aukera zleko Lehen Hezkuntzako irakasleek besterik ez dutela eta, ondorioz, ez dela harritzekoa orokorrean horiez egiten den erabilpen maila aztertzean ehuneko baxuekin topo egitea. Beraz, arbela digitalaren erabilpen maila oso altua dela ikus daiteke, baliabide hori erabiltzeko aukera duten irakasle guztiek baitarabilte irakurzaletasuna sustatzeko.

Irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTak zein modutan erabiltzen dituzten edo zein funtzionalitate ematen dioten irakasleei galdetzean, 7. taulan ikus daitekeen bezala, gehiengoak esperientzia ezberdinak osatzeko zein hornitzeko jarduera gehigarri gisa erabiltzen dituztela baieztatu du (%53,8k). Etapa ezberdinak bereizita ere Haur zein Lehen Hezkuntzako irakasleen gehiengoak modu berean erabiltzen dituztela ikus daiteke. Ekimenaren oinarri gisa irakasleen %7,7k erabiltzen ditu, Haur Hezkuntzan erabilera hau Lehen Hezkuntzan baino gehiago ematen delarik (Haur Hezkuntzako irakasleen artean %11,8k ematen dio funtzio hori eta Lehen Hezkuntzan, ordea, %4,5ek). Horrez gain, egoeraren arabera IKTak modu batean zein bestean erabiltzen dituztenek %10,3 osatzen dute, Haur zein Lehen Hezkuntzan, desberdintasunak badaude ere, handiak ez direlarik.

Taula7: Irakurzaletasuna sustatzean IKTen funtzioa, orokorrean zein etapak bereizita (%)

| Erabilera | Orokorrean (%) | Etapako (%)    |                 |
|-----------|----------------|----------------|-----------------|
|           |                | Haur Hezkuntza | Lehen Hezkuntza |
|           |                |                |                 |

|                         |       |       |       |
|-------------------------|-------|-------|-------|
| Jarduera gehigarri gisa | %53,8 | %58,8 | %50   |
| Ekimenaren oinarri gisa | %7,7  | %11,8 | %4,5  |
| Bideratzaile gisa       | %2,6  | %0    | %4,5  |
| Bat baino gehiago       | %10,3 | %11,8 | %9,1  |
| Ez ditu erabiltzen      | %23,1 | %17,6 | %27,3 |
| Erantzunik ez           | %2,6  | %0    | %4,5  |


Jarraitzeko, IKTen eta irakurzaletasunaren sustapenaren uztarketaren inguruan irakasleek duten iritzia eta jarrera aztertzeko, bi zentroetako irakasleei IKTen inguruko mesfidantza mailaren inguruan galde egin zaie. IKTak erabiltzeaz fio den irakasle talde handia geratu da agerian (ikus taula 8). Horrela, mesfidati ez direnen kopurua %84,6koa izanik, irakurzaletasuna sustatzerako orduan teknologia berrien erabileraren inguruan izua edo ekidin nahia sentitzen ez duen profesional kopurua oso altua dela ikus daiteke. Bestalde, mesfidati direnen IKTenganako sentipen ezkor horren kausa zein den aztertzean ezberdintasunak ageri dira: %40a formakuntza falta dela medio da mesfidati, beste %40k IKTak beste ekintza batzuk bideratzeko baliagarriagoak direlako ustea du eta gainerako %20k irakurzaletasuna sustatzeko tresna baliagarri ez direlako iritzia dauka.

Taula8: IKTenganako mesfidantza maila, orokorrean zein etapaka bereizita (%)

| IKTenganako mesfidantza | Orokorrean (%) | Etapako (%)    |                 |
|-------------------------|----------------|----------------|-----------------|
|                         |                | Haur Hezkuntza | Lehen Hezkuntza |
| <b>Bai</b>              | %12,6          | %0             | %22,7           |
| <b>Ez</b>               | %84,6          | %100           | %72,7           |
| <b>Erantzunik ez</b>    | %2,6           | %0             | %4,5            |

Horrez gain, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako irakasleen artean lortutako emaitzak alderatuta, aipatutako bigarren etapan lanean dabiltzan irakasleek Haur Hezkuntzakoek baino mesfidantza maila handiagoa dutela argi ikusten da (ikus. irudia 6). Izan ere, Haur Hezkuntzan lanean dabilen irakasleen %100a ez da mesfidati IKTen erabilerari dagokionez baina Lehen Hezkuntzan %72,7a besterik ez.

Irudia6: IKTen inguruko mesfidantza maila, etapaka bereizita



Emaitza hori baxua ez den arren, azpimarratzeko moduko aldea ezartzen du haur txikiaren irakasle direnekiko. Haur Hezkuntzako irakasleek eremu horretan dirudienez ziurtasun handiagoa dute eta, zergatiak anitzak izan badaitezke ere, adinak zerikusi zuzena izan lezake. Izan ere, etapa bakoitzeko irakasleen adina aztertuta (ikus. taula 9) irakasle gazteenak Haur Hezkuntzako etapan aurki daitezkeela ikus daiteke. Horrek eragina izan lezake IKTenganako mesfidantza mailan irakasle gazteenek (kasuak kasu) teknologia berrien inguruan esperientzia eta ziurtasun maila handiagoa izaten baitute.

Taula9: Irakasleen adina etapa bakoitzean (%)

| Etapa           | Adin tartea |            |            |                 |
|-----------------|-------------|------------|------------|-----------------|
|                 | 20-30 urte  | 31-40 urte | 41-50 urte | 50 urtefik gora |
| Haur Hezkuntza  | %35,3       | %29,4      | %11,8      | %23,5           |
| Lehen Hezkuntza | %0          | %18,2      | %9,1       | %72,7           |

Irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTak erabiltzeko formakuntza jasotzea gustatuko litzaiekeen galdetuta, emaitza argiak azaleratu dira. Bi zentroetako irakasle taldearen gehiengoari arlo honen inguruko formakuntza jasotzea gustatuko litzaioke, %92,3ri zehatz-mehatz. %5,1i ez litzaioke gustatuko (2 irakasleri) eta %2,6k ez dio galdera honi erantzun (irakasle bakarrak). Beraz, galdera honi dagokionez adostasun maila edo iritzi berberaren orokortasun maila altua dela ikus daiteke (ikus. taula 10).

Taula10: IKTen inguruan formakuntza jasotzeko nahia, orokorrean zein etapak bereizita (%)

| Formakuntza jasotzeko nahia | Orokorra   |       | Etapaka        |      |                 |       |
|-----------------------------|------------|-------|----------------|------|-----------------|-------|
|                             | Maiztasuna | %     | Haur Hezkuntza |      | Lehen Hezkuntza |       |
|                             |            |       | Maiztasuna     | %    | Maiztasuna      | %     |
| Bai                         | 36         | %92,3 | 17             | %100 | 19              | %86,4 |

|               |   |      |   |    |   |      |
|---------------|---|------|---|----|---|------|
| Ez            | 2 | %5,1 | 0 | %0 | 2 | %9,1 |
| Erantzunik ez | 1 | %2,6 | 0 | %0 | 1 | %4,5 |

Bestalde, irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTen erabilpen maila eta alor honen inguruan formakuntza jaso nahia alderatzean emaitza argigarriak ikus daitezke (ikus. taula 11). Lehenagotik ikusi den bezala, irakurzaletasuna sustatzeko aurrera eramaten dituzten ekintzetan IKTen presentziaz baliatzen diren irakasleak profesional taldearen %56,4a dira. Horien artean guztiei (%100ari) gustatuko litzaieke gai honen inguruko formakuntza jasotzea eta, beraz, teknologia berriak darabiltzaten arren, prestakuntza maila handiagoa izatea gustatuko litzaiekela baieztatzen dute. Irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTez baliatzen ez diren irakasleek profesional taldearen gainerako %43,6ren parte dira. Horien artean formakuntza jaso nahiko luketenak %82,4 dira, gehiengoa. Beraz, IKTak erabiltzen ez dituzten irakasleen gehiengoak formakuntza jaso nahia du buruan eta, beraz, hori izan liteke askok IKTak alderatzearen kausetariko bat.

Taula11: IKTen erabilpena eta formakuntza jaso nahia alderatuta (%)

| IKTez baliatzen da irakurzaletasuna sustatzeko |           |       | Formakuntza jasotzeko nahia |       |           |       |               |      |
|--|-----------|-------|-----------------------------|-------|-----------|-------|---------------|------|
|  |           |       | Bai                         |       | Ez        |       | Erantzunik ez |      |
| Bai  | Maiztasun | %     | Maiztasun                   | %     | Maiztasun | %     | Maiztasun     | %    |
|  | 22        | %56,4 | 22                          | %100  | 0         | %0    | 0             | %0   |
| Ez   | Maiztasun | %     | Maiztasun                   | %     | Maiztasun | %     | Maiztasun     | %    |
|  | 17        | %43,6 | 14                          | %82,4 | 2         | %11,8 | 1             | %5,1 |

## 6. ONDORIOAK

Lan hau gauzatzearekin batera erdietsi nahi izan den helburu nagusia helburu zehatzagoen bidez konkretatu dela kontuan hartuta, egindako ikerketaren eta jarraitutako prozesuaren bidez atera ahal izan diren ondorioen azterketa da jarraian azalduko dena. Horretarako, lan honen hasieran planteatu diren hipotesi eta helburu zehatzen inguruko aipu eta erantzunak emango dira jarraian.

**Irakurzaletasuna sustatzeko teknikak eta esperientziek eskola eremuko egunerokotasunean zer nolako presentzia duten aztertzea.**

Irakasleriaren gehiengoarentzat da garrantzitsu bere ikasleekin irakurzaletasuna sustatzea eta, batzuek jardun honi lehentasuna ematen ez badiote ere, landu beharreko



eremutat ikusten dute. Hala ere, Lehen Hezkuntzan lehentasun handiagoa ematen zaio irakurzaletasuna sustatzeari Haur Hezkuntzan baino, azken hauek guztiz baztertzen ez duten arren. Horrela, eguneroko errealitatean Haur Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzeari denbora tarte txikiagoa eskaintzen zaiola ikusi da, etapa honetan ipuinek, olerkiek, antzerkiek, ikus-entzunezko tresnek... duten presentzia are handiagoa den arren. Bestalde, orokorrean, irakurzaletasunaren sustapenak indarra galtzen du zenbaitetan programaren presioaren edo eguneroko dinamikaren ondorioz, irakasle askok garrantzia eman baina ezinezko ikusten dutelarik jardun hau aurrera eramatea.

Beraz, laburbilduz, irakurzaletasuna sustatzeak eskolako egunerokotasunean duen presentzia maila altua dela ondorioztatu daiteke, espero baino altuagoa, eta irakasleen aldetiko jarrera baikorra dela eremu honi dagokionez. Horrela, irakurzaletasunari garrantzia eman eta, askotan zaila izaten den arren, bigarren planora baztertzea ekiditeko saiakera egiten da. Hala ere, Haur Hezkuntzako etapam jarduera garrantzitsutzat daukaten arren, inportantzia gutxiago ematen zaio.

**Haur txikienekin irakurzaletasuna sustatzeari ematen zaion garrantzia zer nolakoa den eta horretara bideratuta dauden ekimenen presentzia maila aztertzea.**

0 eta 6 urte arteko haurrekin irakurzaletasuna sustatzeak garrantzia duela uste den arren eta horretara bideratutako ekintzek presentzia duten arren, kasu askotan bigarren maila batean geratzen da eta hurrengo etapam baino garrantzi gutxiago eskaintzen zaiola ikusi da.

Gaur egun Haur Hezkuntzan lanean dabilzan profesionalek Lehen Hezkuntzan daudenek baino garrantzi gutxiago ematen diote haur txikienekin irakurzaletasuna sustatzeari. Beraz, aurreko atalean ondorioztatutakoari azken emaitza hauek gehituz gero, Haur Hezkuntzako langileentzat irakurzaletasuna euren ikasleengan sustatzeak berebiziko garrantzia ez duela esan liteke, baztertzen ez duten arren. Horrela, Lehen Hezkuntzako etapako irakasleen artean kontzientziazio handiagoa dagoela esan liteke.

Bukatzeko, Haur Hezkuntzak biltzen dituen adin tartetan aldeak aurki daitezke irakurketaren sustapenak duen garrantziari dagokionez. Etapa honetan adinez gora egiten den heinean irakurzaletasuna sustatzeak pisua galtzen duela ikusi da. Ondorioz, haurrek irakurtzen ez jakitea irakurzaletasunaren sustapenari garrantzi gutxiago ematearen kausa ez dela esan liteke eta, haurrak Lehen Hezkuntzako etapara hurreritzen doazen heinean, irakurzaletasunari ematen zaion garrantzia txikitzen dela, etapa

horretan irakurzaletasuna sustatzeak presentzia handiagoa duen arren.

**Irakurzaletasuna sustatzeari dagokionez IKTen erabilpen maila eta erabilera zer nolakoa den aztertzea: oinarria, jarduera gehigarria, bideratzailea, laguntzailea...**

IKTek irakasleentzat izugarritzko presentzia eta baliagarritasuna dutela frogatzen ez den arren, erabiltzen eta kontuan hartzen diren tresnak direla esan liteke, irakurzaletasuna sustatzerako orduan baztertzen ez direnak hain zuzen ere. Hala ere, kontuan hartu behar da desberdintasun maila handiak eman daitezkeela etapa zein eskola ezberdinetan zentratuz gero.

Bestalde, irakurzaletasuna sustatzerako orduan erabiltzen diren IKTen artean nagusitzen diren tresnak ordenagailua eta Interneta dira. Hauek irakurketarekin zerikusia duten jarduera gehigarriak proposatzeko eta gauzatzeko erabiltzen ditu askok. Beraz, IKTak tresna lagungarritzat ditu gehiengoak, ardatz diren jarduera zein esperientziak osatzera bideratzen dituelarik eta oso gutxik ematen die Informazio eta Komunikazio Teknologia berriei nagusitasuna. Ondorioz, irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTen erabilpen maila pentsa baino altuagoa den arren, ematen zaien funtzioa edo erabilerak bigarren plano batera baztertzen ditu, oinarritzko ekimenaren, esperientziaren edo teknikaren burutzea eta gero erabiltzeko tresnak bailitzan.

**Irakaslegoaren artean irakurzaletasuna sustatzeko IKTen erabileraren inguruko jarrera zer nolakoa den aztertzea.**

Irakasleek IKTen inguruan sentitzen duten mesfidantza maila altua dela pentsatzen zen arren, kontrakoa frogatu da. Beraz, eremu honetan aurrerapausoak ematea galaraziko lukeen aurrejarrera mesfidatia oztopo ez dela ikus daiteke.

Bestalde, 0-6 urte arteko haurren irakasleek IKTen erabilpenaren inguruan sentitzen duten mesfidantza hutsala bada ere, egiten duten hauen erabilpena ez da hain altua. Baina, alderantziz, Lehen Hezkuntzako irakasleek irakurzaletasuna sustatzeko IKTak erabiltzen badituzte ere eremu honekiko mesfidatiago dira, ez dute hainbesteko ziurtasunik sentitzen. Ondorioz, Haur Hezkuntzako irakasle askok IKTak gehiago ez erabiltzearen arrazoia bestelakoa izan liteke (baliabide, programa, proiektu... berriak ezagutze eza, esate baterako). Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, ordea, tresna eta baliabide hauen inguruko informazioa, prestakuntza, laguntza... jasotzea izan liteke baliagarri, ziurtasuna eskuratu eta mesfidantza baztertu ahal izateko.

**Irakasleriaren partetik IKTen inguruan prestakuntza edo formakuntza jasotzeko alde aurretiko jarrera zer nolakoa den aztertzea.**

Irakasle askok irakurzaletasunaren sustapena gauzatzean IKTez eroso eta ziurtasunez baliatzeko formakuntza jasotzeko nahia duela erakutsi du. Esan behar da, multzo honetan IKTak erabiltzen ez dituzten eta erabiltzen dituztenak daudela bilduta eta, beraz, mesfidantza edo ziurtasun eza sentitu ez arren formakuntza nahia oso zabalduta dagoela. Horrela, ziurtasuna eskuratzeaz gain IKTen bidez irakurzaletasuna modu aberasgarriago batean sustatzeko baliabide, proiektu, tresna... berri edo ezezagunak ezagutzeko grina dagoela esan liteke.

Beraz, formakuntza nahi orokor honek irakurzaletasuna sustatzerako orduan IKTez baliatzeko gogo nabarmentzen du, hauen erabilera ukatzeari kontrajarritako jarrera. Horregatik, edozein aldaketa prozesutan parte hartzaileen posizionamenduak duen garrantzia kontutan hartuta, irakurketarekiko gozamina eta teknologia berrien arteko uztarketa egiteko oinarriak ezartzen hasi garela esan liteke.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Cerrillo, Pedro Cesar (2005). Lectura y sociedad del conocimiento. *Revista de educación, ezohikoa*, 53-61.
- Consejo Nacional de Fomento Educativo (2011). *Fomentando la lectura desde Educación Inicial*. Mexiko.
- Dilia Escalante, Dilia eta Reina Caldera, Violeta (2008, urria). Literatura para niños: una forma natural para aprender a leer. *Educere, zb. 43*, 669-678.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (2012). *Euskal Autonomia Erkidegoko Irakurketa-Planaren estrategia eta ideiak*. EAE.
- Gómez-Villalba Ballesteros, Elena eta Nuñez Delgado, M<sup>a</sup> Pilar (2007). La enseñanza de la lectura en el aula. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura, zb. 44*, 19-33.
- Hervás Anguita, Esther (2008, ekaina). Importancia de la lectura en la Educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas, (7)*. 2014-06-4.  
[http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_7/ESTHER\\_HERVAS\\_2.pdf](http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_7/ESTHER_HERVAS_2.pdf)
- Lomas, Carmen (2002). *Cómo hacer hijos lectores*. Madril: Palabra S.A.
- Lomas, Carlos (2004). Leer para entender y transformar el mundo. *Cuadernos de Pedagogía, zb.331*, 86-90.  
<http://www.hikhasi.com/albistea.php?id=576>
- M. León Pino, Yaquelina (2013, uztaila). La animación a la lectura: una forma eficaz para formar lectores. *Pedagogía y Sociedad, 37*.
- Mar, Raymond eta Oatley, Keith (2009). Exploring the link between reading fiction and empathy: Ruling out individual differences and examining outcomes. *Communications, zb. 34*, 407-428.
- Marchesi, Alvaro (2005). La lectura como estrategia para el cambio educativo. *Revista de educación, ezohikoa*, 15-35.
- Paredes Labra, Joaquín (2005). Animación a la lectura y TIC: creando situaciones y espacios. *Revista de educación, ezohikoa*, 255-279.
- Quintanal, Jose (2000). Actividades lectoras para la Escuela Infantil y Primaria. *Animación a la lectura*. Madril: CCS.
- Soler, Marta (2013, uztaila). Las interacciones son la clave para aprender a leer. *Aula de Infantil, zb. 71*, 35-39.

## 8. ERANSKINAK

### 1. eranskina: Inkesta

#### **IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO TEKNIKA ETA ESPERIENTZIAK: IKT-EN ERABILERA**

Galdeketa honen helburuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak irakurzaletzeari ematen zaion garrantzia aztertzea eta horretara bideratutako ekintzak, esperientziak, teknikak... gauzatzerako orduan Informazio eta Komunikazio Teknologiek duten presentzia zer nolakoa den neurtzea dira.

Ez dago erantzun “zuzen” ez “okerrik”, norberaren iritzi eta errealitatea dira bertan islatu beharrekoak. Erantzunak izengabekoak izanik isilpekoa izango da eta aipatutako azken helburuak erdiesteko besterik ez dira erabiliko.

#### **1. BLOKEA: Irakaslearen inguruko informazioa**

1. **Sexua:** Emakumea [ ] Gizona [ ]

2. **Adina:** \_\_\_\_\_ urte

3. **Ikasketak:** Lizentziatura [ ] Diplomatura [ ]

4. **Hizkuntza:** Euskara [ ] Gaztelera [ ]

5. **Hezkuntza etapa:**

Haur Hezkuntza [ ]

\_\_\_\_\_ urteko gela

Lehen Hezkuntza [ ]

\_\_\_\_\_ maila

6. **Beti aritu izan zara etapa berean?** Bai [ ] Ez [ ]

7. **Irakasle bezala izandako esperientzia urteak:**

0 - 4 urte [ ]

5 - 10 urte [ ]

11 - 20 urte [ ]

21 urte baino gehiago [ ]

#### **2. BLOKEA: Irakurzaletasuna sustatzeko esperientziak**

8. **Zure etapan irakurzaletasuna haurrengan sustatzeak zer nolako garrantzia dauka? (0tik 10era) \_\_\_\_\_**

**9. Irakurzaletasuna sustatzeak bestelako zaletasunak (kirolak, musika, artea...) sustatzeak besteko garrantzia dauka?**

Bai [ ]      Ez [ ]

**10. Egunerokotasunean irakurzaletasuna sustatzeko esperientzia, teknika, ekintza... ezberdinak gauzatzeari eskaintzen diodan denbora honakoa da:**

- - Egunero egiten dut zerbait [ ]
  - Astero egiten dut zerbait [ ]
  - Noizbehinka eskaintzen diot denbora [ ]
  - Gutxitan eskaintzen diot denbora [ ]
  - Inoiz ez diot denborarik eskaintzen [ ]

**11. Irakurzaletasuna sustatzeko esperientzia, teknika, ekintza... ezberdinak gauzatzeari eskaintzen diodan denbora nahikoa dela uste dut.**

Bai [ ]      Ez, programaren presioa dela medio ezin diot nahi besteko denbora eskaini [ ]

**12. Haur txikienekin (Haur Hezkuntzako etapakoekin) irakurzaletasuna sustatzeak zenbateraino dauka zentzua/zenbaiteraino da garrantzitsua? (0tik 10era) \_\_\_\_\_**

### **3. BLOKEA: IKTak eta irakurzaletasuna**

**13. Irakurzaletasuna sustatzeko IKTez baliatzen naiz:**

Bai [ ]      Ez [ ]

**14. Haurren irakurzaletasuna sustatzeko baliabide gisa IKTak erabiltzea...**

- Beharrezkoa eta baikorra iruditzen zait [ ]
- Beste edozein teknika bezain baliagarria dela deritzot [ ]
- Zentzugabekoa iruditzen zait [ ]

**15. IKTak irakurzaletasuna sustatzerako orduan honela erabiltzen ditut:**

- Ez ditut erabiltzen [ ]
- Jarduera gehigarri bezala erabiltzeko [ ]
- Ekimenaren oinarri gisa [ ]
- Jardueraren bideratzaile gisa [ ]

**15. Egunerokotasunean irakurzaletasuna sustatzerako orduan erabiltzen ditudan IKT baliabideen artean hauek daude:**

Ordenagailua [ ]      Proiektorea [ ]      Arbela digitala [ ]      Interneta [ ]      Bat ere ez [ ]  
Bestelakoak.....

**16. IKTak irakurzaletasuna sustatzeko baliabide gisa erabiltzerako orduan mesfidati naiz:**

Bai [ ]      Ez [ ]

- Zergatik? (Baietz erantzun baldin baduzu)

- Formakuntza faltagatik [ ]
- Irakurzaletasuna sustatzeko tresna baliagarri gisa ikusten ez ditudalako [ ]
- IKTak beste era bateko ekintzak bideratzeko erabili beharko liratekeelako [ ]

**17. Gustatuko litzaizuke prestakuntza/aholkularitza jasotzea arlo honetan?**

Bai [ ]      Ez [ ]